

EURI TANTAK EGUZKITAN ,
OSTADARRA ZERUAN,
ZELAIAN LORETXOAK,
DANTZAN ETA DANTZAN.

MARIGORRINGO,
ZURIGORRINGO,
BIHAR EGUZKIA
ALA EURIA EGINGO? ¹

HOTZA, HAU HOTZA!
DARDARKA DUT BIHOTZA.
TXORITXOA ERE HOTZ DA,
EZ DU MAITE IZOTZA. ²

²Ibaizabal argitaletxea.

Oharra: "Hotza, hau hotza!" esatean, dardarka esan.

Beste gaia: NEGUA

LEIHOA IREKI ETA ELURRA.

DENA ZURI, DENA BIGUN,

ESTALITA DAGO LURRA,

DENA ZURI, DENA BIGUN. ³

PUTZUETAN PLISTI-PLASTA

HASI NAIZ ATXISKA.

ATXIS!, ATXIS!

ATXIS!, ATXIS! ⁴

4 I. Urbieta, Zubia-Santillana argitaletxea (moldatua).

EURIAK, TXIPLI-TXAPLA,
KAZKABARRAK, KISKI-KASKA,
HAIZEAK FIRI-FIRI,
TRUMOIAK BUR-BUR,
NI BANOA ETXERA.
BIHAR ARTE, AGUR! ⁵

⁵ Antón Kazabon, *Anpolai gorriak* liburua (Moldatua).